MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Goi Eskola Politeknikoa**

Albisteak

# Berdintasunaren aldeko hainbat jarduera Mondragon Unibertsitatean

2015/11/09




“Emakumeak eta zientzia: zientzia ere emakumeen kontua da” leloa izango du egitasmoak. Erakusketa bat egingo da zientzia eta teknologiaren munduan ekarpen garrantzitsuak egin dituzten emakume erreferenteak ikasleei ezagutarazteko helburuarekin. Horrekin, zientzia eta teknologia gizonezkoekin lotzen duen estereotipoa apurtu nahi da. Gainera, pertsonen arteko talde lanak arlo guztietan duen garrantzia nabarmendu nahi da.

Halaber, azaroaren 24an 10:45ean eta 16:15ean Arrasteko Campuseko ikasleentzako 30 minutuko performance bat egingo da.

| | **ERAKUSKETA** | **PERFORMANCE** |
|---|---|---|
| **Tokia** | Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa<br>Loramendi, 4 - Arrasate | Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa<br>Loramendi, 4 - Arrasate |
| **Data** | 23 - 27/11/2015 | 24/11/2015 |
| **Ordutegia** | 07:45 - 18:30 | 10:45 - 11:15 eta 16:15 - 16:45 |